

Euskal AEko industria-prezioek % 2,7 egin dute behera 2022ko abenduan, aurreko hilabetearen aldean


2021eko abenduarekin alderatuta, industria-prezioek % 13,4 egin dute gora

Euskal AEko industria-prezioek % 2,7 egin dute behera 2022ko abenduan, aurreko hilaren aldean, Eustatek dituen datuen arabera. Abenduko urte arteko tasa –azken hamabi hiletako industria-prezioen aldakuntza jasotzen du– % 13,4koa da.

Analisi xehatuago batek agerian uzten du 2022ko abenduan jaitsiera nabarmenenak erregistratu dituzten sektoreak honako hauek izan direla: *Energia elektrikoa, gasa eta lurrina* (% 10,2koa), *Kokeriak eta petrolio-fintzea* (% 9,8ko jaitsiera) eta *Produktu farmazeutikoen fabrikazioa* (% 2,2koa).

Prezioetan hilen arteko igoera handiena izan duten sektoreak, berriz, honako hauek izan dira: *Elikagaigintza, edariak eta tabakoa* (% 1,4), *Erauzketa-industriak* (% 0,7) eta *Industria kimikoa eta Metalurgia eta produktu metalikoak eta Ura* (% 0,6ko igoera hiru sektoreetan).

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Helmuga ekonomikoko ondasunen sailkapenari jarraikiz, *Kontsumo-ondasunen* prezioen aldakuntza, 2022ko azaroarekin alderatuta, % 1,0ekoa izan da, % 1,1eko igoera egon baita *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunetan* eta % 0,4koa *Kontsumo iraunkorreko ondasunetan*. *Energiaren* prezioek, berriz, % 10,7 egin dute behera; *Tarteko ondasunenek* eta *Ekipo-ondasunenek* % 0,4 egin dute gora.

Urte arteko terminoetan, 2022ko abenduan, 2021eko abenduaren aldean, prezioen igoera handienak izan dituzten adarrak honako hauek izan dira: *Zuraren, paperaren eta arte grafikoaren industria* (% 24,0ko igoera), *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 23,7), *Industria kimikoa* (% 22,2) eta *Kokeriak eta petrolio-fintzea* (% 18,4).

Prezioen urte arteko aldakuntza positiboa izan da helmuga ekonomikoaren arabera ondasun-talde handi guztietan. *Energiaren* prezioek % 21,1 egin dute gora, *Tarteko ondasunenek*, % 15,2 eta *Kontsumo ondasunenek*, % 13,7, *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunen prezioak* % 14,9 igo direlako eta *Kontsumo iraunkorreko ondasunen prezioak* % 5,8 igo direlako. Azkenik, *Ekipo-ondasunek* prezioetan urte artean % 2,5 egin dute gora.

Euskal AEko Industria prezioen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Abendua 2022

   Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística



	INDIZEA	ALDEAREN %	
		m / m-1	m / m-12
INDIZE OROKORRA	130,4	-2,7	13,4
SEKTORE-BANAKETA			
Ateratze-industriak	117,8	0,7	6,3
Manufaktura-industria	127,2	-1,1	11,7
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	126,9	1,4	15,9
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	111,0	-1,8	6,9
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	143,0	0,2	24,0
Kokeak eta petrolio fintzen	148,0	-9,8	18,4
Industria kimikoa	152,3	0,6	22,2
Botiken fabrikazioa	122,6	-2,2	8,9
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	110,3	-0,4	8,3
Metalurgia eta produktu metalikoak	139,0	0,6	14,9
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	114,5	-0,1	-1,4
Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa	113,3	0,0	5,5
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	109,7	-0,1	3,5
Garraiorako materialen fabrikazioa	107,3	0,4	0,9
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	113,4	0,0	3,5
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	150,1	-10,2	23,7
Ura	122,6	0,6	10,4
INDUSTRIA-SEKTORE HANDIEN ARABERA			
Kontsumo-ondasunak	125,1	1,0	13,7
Kontsumoondasun iraunkorrak	112,9	0,4	5,8
Kontsumoondasun ez-iraunkorrak	127,1	1,1	14,9
Ekipo-ondasunak	112,7	0,4	2,5
Bitarteko ondasunak	132,0	0,4	15,2
Energia	152,8	-10,7	21,1

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m / m-1: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2023ko Urtarrilaren 24a

Iturria: Eustat. Industria Prezioen Indizea

INFORMAZIO-OHARRA

Eustat-ek eskerrak eman nahi dizkie elkarlanean jardun duten establezimendu guztiei, egin duten ahaleginagatik. Haiei esker, hil honetako indizea laginaren % **91,75**eko estaldurarekin kalkulatu da.

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62